


POTTOKA

Ttuku-ttuku, aintzina pottoka
mendiko piñudi itzalean.

Trostaka, gure buztan luzea
iratzean* erneki sartzen da.

Lauhazka-lauhazka, aberea
gain zelaian jauzika dabila.

* iratzean : garoan



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Erritmo ezberdinak landu. Zuzen kantatu.	◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatu bidez.	◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea iharduerari egokitu ; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.
MUNDUAN IHARDUN. Pottokaren ibilmoldea (urratska, trostaka edo lauhazka) irudikatu. Mugimenduak koordinatu. Kopla bat eman eta erritmoa asmatu. Erritmo bat kodetu.	◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintza burutzea ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.	◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	


USTIAPENA (egin moldea)

Haurrak errondan daude, xutik.

LEHEN KOPLA

Haurrek kantatzen dute : *Ttuku-ttuku aintzina pottoka
mendiko pinudi itzalean.*


Koplaren ondotik, izterrak jotzen dituzte (eskuineko eskuarekin eskuineko izterrean, ezkerreko eskuarekin ezkerreko izterrean) eta mihia klaskatzen erritmoari jarraikiz :



BIGARREN KOPLA

Haurrek kantatzen dute : *Trostaka gure buztan luzea
iratzean erneki sartzen da.*


Koplaren ondotik izterrak eta eskuak aldizka jo, mihia klaskatuz erritmoari jarraikiz :



HIRUGARREN KOPLA

Haurrek kantatzen dute : *Lauhazka-lauhazka aberea
gain zelaian jauzika dabila.*

Koplaren ondotik, izterrak jotzen dituzte (eskuineko eskuarekin eskuineko izterrean, ezkerreko eskuarekin ezkerreko izterrean) eta mihia klaskatzen erritmoari jarraikiz :



Beste ariketa zenbait :

- Erritmo finkatu baten arabera ibili : urratska, trostaka, lauhazka.
- Haur baten ibilmoldearen arabera beste haur batek erritmoa ematen du.
- Erritmo ezberdinak marrazkien bidez nola erakusten ahal diren hurrekin aurkitu. Adibidez :

1. X X X X *urratska*
2. X X X X X X X X *trostaka*
3. X X X X X X X X X X X X X X *lauhazka*

Hori elgarrekin finkatu eta, marrazki batek erakutsi bezala ibili (edo alderantziz).

HIZKUNTZA HELBURUAK :

Lexikoa : urratska, trostaka, lauhazka.

Iragana : erakasleak erritmoa jotzen du. Ondotik haurrak ibiltzen dira eta azkenik haurrek zer egin duten adierazten dute : « *Trostaka ibili gara* ».

Oraina : erakasleak erritmoa jotzen du eta trostaka dabiltzan une berean, haurrek « *Trostaka gabiltza* » erraiten dute.

Geroa : haurrek erraiten dute lehenik « *Trostaka ibiliko gara* ». Erakasleak erritmoa jotzen du eta haurrak trostaka ibiliko dira.

☺ Pottokaren marrazkia margo ezazu.

Osatzeko :

- **entzun** *Pottoka mendian* kantua. Otxalde.
- **entzun** *Pottoka. Marijane kanta zan !* KDa. Oskorri.
- **entzun** *Domestic animals ands pets. Animaux domestiques et familiers. Animaux domésticos.* KDa. Auvidis distribution.
- **ikus** *Urbiako pottokak* kantua. Imanol Urbietta. Haur kantarien birlorak. Elkar-GIE.

